



bai

ziurtagiridunen aldizkaria

12. alea

2013ko urria

Enpresarean enpresa sarea, euskaraz



ziurtagiriaren
elkartea

Lehiakortasuna



Rober Gutiérrez [Zuzendaria]
@robergutierrez

Euskara eremu sozioekonomikoan txertatzea estrategikoa da hizkuntzaren normalizaziorako. Eta enpresen ikuspegitik, euskara txertatzea estrategikoa al da?

Enpresentzat eta era guztietako entitateentzat lagungarri da euskara euren organizazioan txertatzeko neurriak bere egitea, euskaran inbertitzeak onurak baitakartzio enpresari. Hala diote horretaz jabetu diren enpresek, euskara euren jarduna lehiakorrago egiteko erremintatzat dutenak.

Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren Lehiakortasunari buruzko 2013ko txostenean begiratzen badugu, ordea, ez dago hizkuntzen edo hizkuntza-kudeaketaren aipamenik. Ez da alor hori aztertu lehiakortasunari lotuta eta, horrenbestez, datuetan oinarrituta ez dago esaterik euskararen erabilerak enpresen lehiakortasuna handitzen duenetz. Hala ere, Orkestrako Maria Jose Arangurennek esaten duen bezala, enpresek herrietan errotuta egon behar dute, eta herriarekiko erantzukizuna behar dute. Enpresak, langileak eta lurraldeak balioa sortzen dute, eta horrek konpromiso bat eskatzen du. Eta konpromiso horrek lehiakorrago egiten du enpresa. Euskara hor kokatu behar da.

Guillermo Dorronsorok ere, iazko Enpresarean azokan, sustraiak eta hegoak dituzten pertsonak behar ditugula adierazi zigun. Hegoak kanpora joan eta herrialde ezberdinetako esperientziak ezagu-

tzera joateko eta hemengoa aberasteko; eta sustraiak, nora itzuli nahi dugun jakiteko eta joaten garen lekura joanda ere, bertako ohiturak eta sustraiak aintzat hartzeko. Sustraiak ditugu eta sustrai horiek enpresetan txertatu behar ditugu. Hizkuntza sustraiaren parte da, zaindu beharreko aldagaia.

Hortaz, gure diskurtsoaren funtsa, euskara euren egunerokotasunean txertatzen ari diren enpresetan diharduten pertsonen iritzietan eta pertzepzioetan oinarritu dugu: euskara lagungarria da merkatuan lehiakideek baino posizio hobea irabazteko garaian, bezero kopurua handitzeko, merkatu berrietan sartzeko edo-eta etekinak areagotzeko; produktu eta zerbitzuak bere hizkuntzan eskaini behar zaizkio bezeroari, harreman-hizkuntza berak hautatu behar baitu, produktu eta zerbitzuak lehiakorrak eta kalitatezkoak izango badira; euskara gertutasun eta konfiantzaren adierazgarri da; barrura begira ere, enpresarekiko atxikimendua areagotu eta motibazioa indartu egiten da lanean ari diren pertsonengan, etab.

Enpresek hizkuntzak kudeatzen dituzte, inplizituki edo esplizituki. Lan tresna izanik, ezinbesteko dute hizkuntzen kudeaketa, lehiakorrak izango badira. Euskaraz ekimen enpresarialak abiatu eta garatzen ari dira; adibideak hor daude. Horrez gainera, eremu hau ikertzeko garaia da, euskarak lehiakortasunean nola eragiten duen ikertzekoa.

kolaborazioa 03

Pilar Kaltzada, Komunikazio eta Berrikuntzan aholkularia

erreportajea 04

Enpresarean *fast-dating*, negozioak egiteko hitzordu azkarrak

elkarrizketa 08

Mikel Navarro eta Maria Jose Aranguren, Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Instituta

elkartea 12

Bai Euskarari Sariak
Bai Euskarari Ziurtagiriaren
Elkartea Gasteizko Badu Bada erakusketan

elkartea 13

Hausnarketa estrategikoa: etorkizuna eraikitzen

berriak 14

Txakolinak on egin

berriak 15

Kirola eta euskara, eskutik helduta
EHNE-Bizkaia Elikadura Burujabetza Saria jaso du

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkarte www.baieuskarari.org | Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148 | 1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 | Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026 | Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 | Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez | Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkarte eta Kultur Atelier | Diseinua eta maketazioa: dalez | Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkarte, Getariako Txakolina Jatorrizko Deitura, Arabako Txakolina Jatorrizko Izendapena | Inprimatzailea: Leitzaran | Banaketa: Ziurtagiriaren Elkarte | Lege gordailua: SS-497-2010

@baieuskarari

baieuskarariziurtagiria

www.baisarean.org



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**

Ezlaigo poligonoa, 21^a Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Pilar Kaltzada

Euskal Herrian, badugu identitate ukigarri egiten duen elementu indartsu bat, geure-geurea dena. Beste hizkuntza asko erabiliko ditugu lanaren munduan, baina bakarrik geurea den euskarak nortasun propioa eratzen laguntzen digu

[Komunikazio eta Berrikuntza aholkularia]

Sirena-hotsa

Goizean sirenak iragartzen zuen egunaren hasiera, urtetan eskarmentua hartutako orkestrari jotzeko agindua emanez bezala. Lantegi handi eta zaratatsuez inguratuta bizi izan nintzen txikitan, Donostia inguruko langile-auzo baten. Buzo urdin eta laranja zintzilik zeuden etxe guztietako balkoietan, eta bizitzaren erritmoa lantegiek markatzen zuten. Ilundu orduko jotzen zuen gaueko txandaren sirenak eta lotarako ordua iragartzen zuen; abuztuaren hutsik geratzen zen auzoa, lantegiak itxita basamortua bilakatzen baitzen. Huraxe zen orduan niretzat lanaren mundua, sirenek agintzen zuten bizitzeko modu finko eta aurrerako moduko hura, eta bakarra zelakoan bizi izan nintzen urte askotan.

Gutariko askok (ez dakit gehienok esatea gehitxo ez ote den) ez dugu sekula era horretako lantegi baten lan egin, ezta egingo ere. Gaur egun, ia sektore guztietan, bestelako lanak egiten ditugu bestelako lan-prozedurak erabiliz, eskuarki toki fisikoaren menpekotasun txikia dutenak. Gutxi izango dira lan-bizitza osoa enpresa berean eta lan bertsuak eginez emango dutenak, tokiz edo funtzioz, edo biez, aldatzea baita ohikoena gaur egun.

Mundua aldatu egin da gure inguruan lantegi handiak nagusi zirenetik gaur egunera. Bistakoa da. Ez dakigu oraindik zer jazoko den oraingo krisi sakon honen enbata gaudituko dugunean, baina ikusten hasi gara ez dela lehengo egoeraren antz handikoa izango datorkigun berria. Noraezean gaitza, norantz jo behar dugun ez dakigularik. La-saitzeko balio ez badu ere, badakigu antzera dabil-tzala eraldaketa bortitz horretan murgilduta dauden

Mendebaldeko gaienerako herriak ere. Urte batzuetan globalizazioaren leloak erantzunak emango zizkigula uste izan genuen, baina oker geunden. Orain ikusi dugu zer dakarren iparorratzik gabe nabigatzeak globalizazioaren ur nahasietan, marrazoez inguratuta. Orain ikusi dugu irautea eta sendo errotzea lortu duten proiektuek komunean duten elementu nagusia nortasuna dela, zerbait propioa, berezkoa: identitatea.

Aldaketa hauen guztien argitan, maiz galdetzen diot nire buruari zerk lotzen dituen pertsonak lan-proiektu beraren barruan, hots, zerk egiten gaituen enpresa bateko kide, hilaren bukaerako soldatik harago. Edo zer herri bateko kide, nahi baduzue. Eta erantzunen bila, askotan aurkitzen dut balore humanista edo gizatar gisa definitzen diren horiek. Talde horren kulturaren parte sentitzea, gure lanaren bitartez lortzen denarekin nola edo hala identifikatzea, komunitate-sentimena, talde-sena. Balore horietan, emandako lan-ordu baten muga estuetatik kanpora zabaltzen diren beste elementu horietan, aurkitzen dut nik proiektu baten kide sentiarazten nauen pizgarria.

Euskal Herrian, badugu identitatea ukigarri egiten duen elementu indartsu bat, berezkoa, geure-geurea dena, eta bakarrik geurea. Beste hizkuntza asko jakingo ditugu, eta erabiliko ditugu lanaren munduan, baina bakarrik geurea den euskarak nortasun propioa eratzen laguntzen digu. Ez dakigu noraino iritsiko garen, baina abiapuntuetako bat bederen, sendoa da. Euskaraz joko al du lozorrotik esnatuko gaituen sirena-hotsak?



Enpresarean *fast-dating*, negozioak egiteko hitzordu azkarrak

Arrasateko Garai Berrikuntza Gunea negozioak egiteko zentro bihurtuko da. Euskaraz lan egiten duten edo-eta zerbitzuak eta produktuak euskaraz eskaintzen dituzten organizazioen bilgune izango da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek antolatu duen Enpresarean 2013 jardunaldiaren baitan -Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arrasateko Udalak eta Laboral Kutxak babesten dute jardunaldia-.

Negozioak egiteko hitzordu azkarren saioaren lekuko izango da. Izena eman duten 40 enpresek besteen esperientziak ezagutu, beren proiektuak aurkeztu, eta produktuak edo-eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten beste enpresa eta profesionalak ezagutzeko aukera izango dute *fast-dating* teknikari esker. *Fast-dating* bakoitzean norberak dituen beharrei eta eskaintzei buruz hitz egiteko aukera izango du hamar minututan.

Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak labur azaldu du Enpresarean 2013 jardunaldiaren xedea: "Gure helburua proiektu enpresarial berriak sortzen laguntzea izango da, euskaratik eta euskaraz." Horixe da, hain

zuzen, aurtengo jardunaldiaren helburu nagusia. Baina ez bakarra.

"Arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresen eta profesionalen artean elkarlana sustatu nahi dugu; baliabideak, esperientziak eta jakintzak partekatzeko gunea eskaini nahi dugu; parte-hartzaileei erraztasunak eman nahi dizkiegu; salmentarako gunea sortu nahi dugu; negozio-aukerak handitu nahi ditugu eta euskararen prestigio soziala areagotu nahi dugu" jakinarazi du Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendaria.

Horretarako, *fast-dating* saioez gain, goiz osoko egitaraua prestatu dute -ikus egitaraua hurrengo orrialdean-.



Hiru urteko ibilbidea luzea

Enpresarean egitasmoa 2010eko azaroan aurkeztu zen Euskaliten Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europar Astearen egitarauan. Ondoren, euskara, sarea eta enpresak lotzeko saioa egin zen Facebook-eko orrialde batean oinarrituta. Ordutik hona, hauxe da egin duen ibilbidea:

2010

- **Azaroa:** Euskaliten Kalitate eta Bikaintasunaren XVI. Europar Astearen, "Enpresa eta euskara. Sareak sortzen" jardunaldia

2011

- Proiektua ezagutzera eman eta www.enpresarean.org sortu

2012

- **Ekaina:** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, lankidetzat hitzarmena sinatu
- **Urria:** Enpresarean azoka, Donostian
 - 100 enpresa inguruk parte hartu zuten
 - 200 pertsona baino gehiagok
 - 1500 jarraitzaile streaming bidez
 - Oihartzun handia komunikabideetan
- **Azaroa:** Euskaliten XVIII. Europar Astearen, jardunaldia Bilbon

2013

- **Otsaila:** Proiektuaren balorazio partekatua Enpresarean-en erabiltzaileekin, Badu Bada erakusketan (Donostia)
- **Martxotik aurrera:** www.enpresarean.org plataforma birtuala indartu
 - 125 enpresa baino gehiago
 - 200 profesional baino gehiago
 - Etengabe haziz doan proiektua
 - Harreman plana
- **Urria:** *Fast-dating* saioa Garaia Berrikuntza Gunean (Arrasate)

gure gaia

Etorkizunean, zer?

Enpresarean egitasmoa ezagutarazteko saiakera egiten jarraitzeaz gain, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek harreman plana indartzen jarraitzeko borondatea azaldu du. "Enpresa berriak erakarri nahi ditugu eta aliantzak bideratu; sarea ehuntzen jarraituko dugu; zerbitzu osagarriak aktibatzeke lanean gabe; azoka birtuala indartu nahi dugu; www.enpresarean.org plataforma eta sare sozialak dinamizatuko ditugu; eta noski, etorkizunean Azokaren edizio berriak antolatuko ditugu". ✕



Egitaraua

9:15 Harrera

9:30 Sarrera instituzionala (Ziurtagiriaren Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala)

10:00 Hitzaldia: Maria Jose Aranguren eta Mikel Navarro (Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko kideak). Izenburua: "Euskal Autonomi Erkidegoko Lehiakortasuna: Etorkizuneko Ekoizpen Eraldaketa"

11:00 1. *fast-dating* saioa (negozio aukera berriak irekitzeko edota proiektu berriak martxan jartzeko)

12:00 Atsedena/ Kafea

12:30 2. *fast-dating* saioa

14:30 Bazkaria

elkar **libbuk**

euskaraz dakien eReaderra
elkar-en eskutik



elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com

elkar





Iraitz Perez de Goldarazena, Oreka I.T enpresako bazkide zuzendaria:

“Iaz, Kursaaletan egin zen azokan, hornitzaile berria aurkitu genuen; zergatik ez bezero bat aurten?”



1.- Nola baloratzen duzue Enpresarean egitasmoa?

2.- Etorkizunari begira, nola indartu daiteke edo zein norabide hartu beharko luke?

3.- Zer espero duzue Arrasateko Polo Garaian antolatutako jardunaldiaz?

1. Tokiko enpresei biltzeko aukera ematen dien esparru bat bezala ulertzen dugu egitasmoa, harreman berriak egin eta zaharrak zaintzeko aukera eskaintzen duena. Hortik lankidetzak-proiektuak, hornitzaileak edo bezeroak atera daitezke; beraz, gure balorazioa oso positiboa da. Kontuan hartu beharra daukagu gainera, bertara gerturatzen diren beste enpresek, guk bezala, euskara merkatuan lehiakorrago bihurtzen dituen tresna bezala ulertzen dutela, eta horrek bertara gerturatzen garen guztion arteko kidetasun sententzia areagotzen du. Hori ere bada egitasmoa berezia bihurtzen duen arrazoi garrantzitsu bat, eta enpresen beste bilguneek eskaintzen ez dituzten zerbait.

2. Orain arteko hitzaldiez gain, mahai-inguru parte-hartzaileak antolatuko nituzke enpresek momentuan ditugun erronka nagusiak hizpide hartuta: egoera ekonomikoa, internalizazioa, lan-hitzarmenen iraungitzea, antolakuntza egitura berriak, eta abar. Beti ere, parte hartzaileak erakartzeko erreferente diren pertsonak gonbidatuz.

3. Tokiko merkatuan gurekin batera aritzen diren beste enpresa eta egitasmo batzuk ezagutzea, Orekak eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematea, eta zergatik ez, negozio aukera berriak topatzea. Kursaaletan hornitzaile berria aurkitu genuen, zergatik ez bezero bat aurten?



Iñigo Albisu, FREMAPeko zuzendaria:

“Etorkizunean industria sektoreko enpresen parte-hartzea sustatu behar da”

1. Egitasmoa osoa interesgarria da. Batez ere enpresa munduan euskararen presentzia beharrezkoa dela ikusten dugunoi elkarkidetzan lan egiteko aukera paregabea eskaintzen digulako. Oso balorazio positiboa egiten dugu beraz.

2. Industria sektoreko enpresen parte-hartzea faltan bota dugu. Etorkizunean esparru hori sustatu behar dela uste dugu. Nola? Esparru horretan aritzen diren enpresei zuzendutako egitasmoak antolatzea izan liteke aukeretako bat.

3. Topagune bat izatea espero dugu. Hain zuzen, euskaraz lan egiten duten eta zerbitzua euskaraz eskaintzen duten erakunde ezberdinen elkargunea.

Arrasateko Garaia Berrikuntza Zentroan antolatu dugun Enpresarean 2013 *fast-dating* saioko protagonistak izena eman duten enpresak dira. Hain zuzen, 40 enpresetako ordezkariak elkartuko dira eta haien iritziak jaso nahi izan ditugu. Guztiei ezin ahotsa eman, eta lagin modura, bertan izango diren Oreka IT, Bitarlan, Hetel eta Fremapeko ordezkarien iritzia jaso dugu.

Leire Belar,

Hetel Heziketa Teknikoko Elkarteko
Komunikazio eta Euskara arduraduna:

“HETEL enpresa zerbitzu berria ezagutzera emateko baliatuko dugu jardunaldia”

1. Euskara planetan eta euskara sustatu nahian gabil-tzan enpresa eta erakundeak gure artean ezagutzeko oso aproposa iruditzen zait. Ekimen interesgarria da enpresa eta erakunde euskaldun ezberdinak gure artean ezagu-tzeko, gure zerbitzuak aurkezteko, gure arteko elkarlana sustatzeko, eta abar. Gainera, aldi berean euskararen erabilera areagotzea errazten du.

2. Niri aurtan proposatu duzuen programa oso egokia iruditu zait, lehenengo hitzaldi interesgarri bat Orkes-traren eskutik eta ondoren alde zuzenetik zehaztutako enpresen arteko elkarriketak edo *fast-dating*ak, elkar ezagutzeko eta zerbitzu ezberdinak aurkezteko. Agian hobekuntza www.enpresarean.org webguneko “elkarla-nerako txokoa”n egingo nuke. Foroa oso tresna egokia da ekimen ezberdinak zabaltzeko, baina aldi berean ho-rrrenbeste mezu jasotzeak askotan kontrako eragina izan dezake. Agian berriak arloka batuko nituzke edo astean behin aste horretan jaso-tako ideia guztiak bidaliko nituzke...

3. Egia esan gogotsu gaude. HETELek ikastetxeen eta enpresen arteko harremana indartzeko HETEL enpresa zerbitzu berria martxan jarri berri du eta Enpresarean 2013 Jardunaldia aukera pa-regabea izango da guretzat enpresak ezagutzeko eta gure zerbitzua erakusteko.



Jabier
Asurmendi,
Bitarlan enpresako
zuzendaria:

“Enpresen arteko elkarlana sus-tatuz, Europa mailako proiektuak gauzatu daitezke euskaraz”

1. Oso egitasmo interesgarria da. Enpresek beste enprese-kin harremanetan jartzeko beharra dute, horregatik ohikoak dira enpresa-topaketak lan arloa edo lurraldea irizpidetzat hartuta, adibidez. Kasu honetan hizkuntza hartu da ardatz gisa, eta ardatz horrekin identifikatzen garen hainbat enpre-sa atxiki gatzatzen Enpresarean egitasmoari. Helburua ez da enpresak elkartu euskarari buruz hitz egiteko, baizik eta enpresa gaien inguruan euskaraz jarduteko eta elkarrekin hel-buruak gauzatzeko. Zoriontzeko modukoa da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Enpresareanekin egindako lana.

2. Proiektuak gorpuzten joan behar du, pixkanaka, eta bere izaera garatu, era honetan enpresak egitasmoarekin gero eta identifikatuago sentituko dira. Elkartuta gauza gehiago egin daitezke, arlo ezberdineko edo arlo bereko enpresen artean. Bidea askoz errazago egiten da lagunduta bakarka baino eta orain egitea egokitu zaigun bidezidorra ez da bereziki erraza. Nire ametsa orain bakarrik egin ezin ditugun proiektu handi eta interesgarriei beste enpresa euskaldunekin batera au-rre egin ahal izatea da, Europa mailako proiektuak, adibidez. Bestetik uste dut Enpresareanek ere laguntza eta zerbitzuak eskaini beharko lizkiekeela enpresei.

3.- Askotan ez da erraza hornitzaileak, bezeroak edo elkarla-nerako kideak enpresa edo zerbitzu gidetan aurkitzea. Fun-tsezkoa da *networking*a egitea, enpresak aurrez aurre eza-gutzea eta kontaktuak egitea, ez bakarrik epe motzerako. Batek daki noiz etor daitekeen elkarlana!



“Herri baten lehiakortasuna bere biztanleen bizi-kalitatearen araberrakoa da”

Mikel Navarro eta Maria Jose Aranguren Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikerlariak dira, ikertzaile seniorra eta ikerketa-zuzendaria, hurrenez hurren. Arrasateko Polo Garaian Enpresarean 2013 jardunaldira gonbidatu ditugu, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasuna: Etorkizuneko Ekoizpen Eraldaketa* hitzaldia eskaintzera. Aurrez biekin elkartu gara Orkestran egiten duten lana ezagutu eta Enpresarean egitasmoaz zein iritzi duten ezagutzeko.

Lehiakortasunerako Euskal Institutua da Orkestra. Zer dago izen deigarri horren atzean?

Mikel Navarro: Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasuna aztertzen dugu, enpresena edo gainerako organizazioena. Lehiakortasunaz ari garenean, barne zein kanpo faktoreez ari gara. Biak ezagutu behar dira, eta sarritan barnekoari gehiegizko protagonismoa ematen zaio. Bada, behar-beharrezkoa da ingurunean dauden eta ingurunea moldatzen dutenak ezagutzea; besteak beste Gobernuak, Klusterrak, garapen agentziak, zentro teknologikoak, eta abar.

Maria Jose Aranguren: Zerbait eranstekotan, esango nuke lehiakortasuna ez dugula soilik hazkunde ekonomikoari lotuta ikusten. Ardatz nagusietako bat da, ados, baina berdintasuna edota ingurumenari errespetua beste ardatz garrantzitsuak dira.

Zergatik sortzen da institutua?

M.N.: Euskaldunoi ekinean aritzea gustatzen zaigu. Gurea herri ekin-tzailea da. Gogoetak egiteko, ordea, alfer samarrak gara. Lehiakortasunean aurrera egiten joan gara, gehiegi hausnartu gabe, ordea. Non gaude, nora joan nahi dugu, zein

“Krisialdia gurera iritsi zenean uste nuen jendeak ulertuko zuela iraganarekin hautsi behar zela, baina kontrakoa gertatu da”

helbururekin... galdera horiei erantzuteko sortzen da Institutua. Hausnarketa horrek etorkizuneko estrategiak argitzen dizkigu.

Zein dira Orkestraren ezaugarri nagusiak?

M.J.A.: Hiru nabarmenduko nituzke: independentea, sustatzailea eta berritzailea da.

bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea

www.bidera.eu

bidera@bidera.eu

Tel.: 943 05 81 54

Maria Jose
Aranguren



Mikel
Navarro



M.N.: Hemen modu independente batean aritzen gara, ez gaude inongo Gobernuren menpe eta hori balio erantsia da gurea bezalako ikerketa-lerro batean. Sustatzailea da ikertzen duguna praktikara eramaten dugulako beste agente batzuekin elkarlanean. Eta berritzailea, orain arte ez delako halakorik egin hemen.

M.J.A.: Orain arteko moldeekin hautsi dugu, paradigma aldaketa bat izan da. Norvegia da gure ispilua, bertatik ari gara edaten. Ekintzari lotutako ikerketa garatu dute, eta oso prozesu aberasgarria izaten ari da. Ikertzeko modu honetan ezagutza partekatzen dugu; gure artean dialogo bat sortzen da, problema aktoreekin definitzen da. Izan ere, zenbait esparrutan adituak garen arren, beste zenbaitetan aktoreak guk baino informazio gehiago izaten du. Soluzioak elkarrekin topatzea da gakoa.

Noiz da herri bat lehiakorra?

M.N.: Herri baten lehiakortasuna bere biztanleen bizi-kalitatearen araberakoa da. Eta tamalez, gurea lehiakortasunetik urrun dago momentu honetan. Ekoizkorrago izateko bideak hartu behar ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoan ba al daude ekoizkorragoak izateko oinarriak?

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Euskara eta hizkuntzen kudeaketa, kultura, aniztasun zein parte hartze gaietan kalitatezko aholkularitza

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.com


HIZKUNTZA
ZERBITZUAK


KULTURA
ZERBITZUAK


ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK


PARTE HARTZE
ZERBITZUAK



M.N.: Ikaragarriak. Hemen daukagun jakintza-azpiegitura punta-puntakoa da, baina oso probetxu gutxi ateratzen diogu. Orain arte jakintza sortzeraz asko bideratu da, jakintza horri etekina ateratzeko garaia heldu da. Lehentasunak aldatzea da gakoa.

M.J.A.: Dibertsifikatzeko estrategia honek eskatzen duena da enpresen eta jakintza-azpiegituren artean harreman sendoagoak lantzea, hau da, ezagutza ezberdinak konbinatzea. Euskaldunak oso onak gara geure kabuz bidea egiten, baina ikasi behar dugu elkarlanerako estrategiak garatzen. Produkzio eta jakintza sistemak uztartzen ikasi behar dugu.

Ez zaizue garai xamurra egokitu zuena bezalako egitasmo bat bideratzeko. Gurean berehalako lehiakortasuna eskatzen da, eta...

M.N.: Krisialdiak aukera paregabeak dira aurrerapausoak emateko. Adibide asko daude: Finlandia eta Singapur, esate baterako. Sistema ekonomikoa goitik behera aldatu zuten, eta krisialditik ateratzeko jakintzan inbertitzea erabaki zuten, murrizketarik gabe.

Aukera baliatzen ari garela uste duzue?

M.N.: Zentzu horretan danbateko handi xamarra hartu dugu. Krisialdia gurera iritsi zenean, halako zerbait gertatzea espero nuen. Uste nuen jendeak ulertuko zuela iraganarekin hautsi behar zela, baina kontrakoa gertatu da. Ez dugu dibertsifikatzeko behar zen ahaleginik egin; gure aukera gogor eustea izan da, eta halako krisi luze batean, azkenerako erreserbak agortu egin dira. Horren



Mikel Navarro

Ekonomiako katedraduna da Deusto Business Schoolen, Deustuko Unibertsitatean, eta Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile seniorra. 60 urte beteak dituen arren, erretiroa urrun ikusten duen horietakoa da.

aurrean Espainiak hartu zuen eredua jarraitu dugu, ajuste eta kaleratzeena. Bide mugatua da, ordea, eta ez du biztanleriaren ongizatea ekarriko.

Egoera hori irauli edo pista batzuk eman nahian Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2013ko txostena kaleratu berri duzue. Zein helbururekin?

M.J.A.: Dibertsifikaziorako klabe batzuk ematen ditugu, gure iritziz etorkizunerako ardatzak izan daitezkeenak. Sei dira; jakin badakigu gehiago daudela, baina gure irizpideen arabera horiek dira lehentasunezkoak. Identifikatu ditugun ardatz horiek aintzat hartu eta hobetzen baditugu, gure ongizatea hobera egingo du.

Eta zein dira ardatz horiek?

M.J.A.: Jakintzazko azpiegitura guztiak; EAEn gaitasun handia daukagu, eta gainera esplotatu gabe, potentzialitate askorekin; teknologia orokorrak, sektore askotan erabil daitezkeen nanoak, bioak, IKTak; energia, guretzat estrategikoa dena, pisu handia duelako gure ekonomia industrialean. Efizientzian irabazten badugu, aurrerapauso handia emango dugu; internalizazio eta berrikuntza estrategiak, horiek enpresa barruan; zerbitzuak, honek ez du esan nahi industriak pisua galduko duenik, alderantziz, zerbitzu integralak eskaintzeko aukeraz ari gara; eta ekintzailetasuna, enpresa berriak sortzen dibertsifikazioa aurrera eramanez. Politika horiek nola bideratu aztertu behar da.

Zuek oso konbentzita ikusten zaituztedan bezala, gainerako eragileak bide beretik jotzeko nahikoa konbentzita daudela uste duzue?

M.J.A.: Txostena argitaratu aurretik eztabaida prozesu sakonak eman dira, eragile askorekin konpartitu ge-

“Enpresak, langileak, lurraldeak balioa sortzen dute, eta horrek konpromiso bat eskatzen du”



Maria Jose Aranguren

Urrestillan jaioa, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktore Deustuan, erakunde horretan Ekonomia Saileko irakasle titularra da, nahiz eta Orkestran Berrikuntzaren eta Eskualdeko Garapeneko Katedraren zuzendaria denetik ordu gutxi eskaini irakaskuntzari.

nuelako. Prozesu horrek kontzientzia sortze bat ekarri du berarekin, eta hori oso inportantea da gure jokabidea zehazteko. Hartzen dugun kontzientziaren arabera egiten dugulako alde batera edo bestera. Jarrerak edo portaerak zein neurritan aldatu diren ez dakigu, baina ziur gaude kontzientzian eragin dugula, eta hori lehenengo urratsa da.

M.N.: Esango nuke Gobernuak bertan agertzen diren hausnarketa batzuk bere egin dituela, gero beste kontu bat da horiek aurrera eramateko gai izango den. Baina arrastoa utzi dute. Jakintzazko egiturak, euskal zientzia eta teknologiarako sarea, erronka bezala hartu ditu. Horiek berrantolatze beharra ikusi dute. Beste horrenbeste dibertsifikatzeko estrategiekin. Energia plana ere abiatu dute. Beste kontu batzuk ez bezala. Inertzia asko daude eta horiek aldatzea kosta egiten da. Gainera departamentu ezberdinetako konpetentziak nahastu egiten dira, eta zaildu egiten du.

Enpresarean 2013 jardunaldian txostena aurkeztu behar duzue, ezta?

M.J.A.: Hala da. Krisi garaian lehiakortasuna bultzatzeko zein bide ikusten ditugun azalduko dugu. Dibertsifikazioa bultzatzeko palankak aurkeztu ahaleginduko gara.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartean behin eta berriro errepikatzen dugu euskara lehiakor delako. Zaila egiten zaigu baieztatzen hori zenbakitan azaltzea. Lehiakortasunerako Institutuak zer dio?

M.J.A.: Aztertu gabeko esparru bat da, eta zaila da esatea euskararen erabilerak lehiakortasun maila handitzen duen ala ez. Antzeko ikerketak egin dira, esate baterako, aniztasunak nolako eragina duen lehiakortasunean. Hizkuntza-aniztasuna altuagoa dagoen lekuetan, zenbait abantaila antzeman dira: eskema mental ezberdinekin lana egiteko gaitasuna daukazu, malgutasun gehiago daukazu ingurune

“Aztertu gabeko esparru bat da, eta zaila da esatea euskararen erabilerak lehiakortasun maila handitzen duen ala ez”

aldakorretarako... baina hortik ezer ondorioztatzea zaila da.

M.N.: Oso arlo mugatua da. Bada go literatura bat, eta hori asko dominatu behar da, eta guk ez dugu menperatzen. Gogoan dut tribunal batean parte hartu nuela, eta bertan euskalgintzak ekonomian duen inpaktua aztertu zuten. Hurbilpen bat baino ez zen. Inpresioa hartu nuen badagoela zer aztertu, baina bide luzea geratzen da jorratzeke.

M.J.A.: Euskalgintza eta lurraldeko baloreak oso lotuta daude. Eta zaila izaten da bereiztea balore horiek lanari lotuak dauden ala kasu honetan hizkuntzari lotuak dauden, nahastu egiten dira. Biak ala biak kulturako parte direlako.

Beraz, euskara lehiakorra da?

M.N.: Euskarak enpresa baten kultura sendotzen laguntzen du. Hortik lehiakorra dela esatea...

M.J.A.: Enpresak herrietan errotuta egon behar dute, eta herriarekiko erantzukizuna behar du. Enpresak, langileak, lurraldeak balioa sortzen dute, eta horrek konpromiso bat eskatzen du. Eta konpromiso horrek lehiakortasuna ematen du. Euskara hor dago, dimentsio horren beste elementu bat dela esango nuke.

Bai euskarari Sariak



Ekainaren 28an urteroko ekitaldi nagusia ospatu genuen Durangoko Plateruena Kafe Antzokian. Atzera begira egin eta, gutxienik-gutxienik, Bai Euskarari Sariak ekarri nahi ditugu gogora. Sariak baliatzen ditugu

urteetan lan munduaren euskalduntzean egindako ibilbide bat saritzeko, eta euren organizazioetan euskara txertatzeagatik gehien nabarmendu diren bi entitatearen lana aitortzeko.

Laugarren edizioan, Elay enpre-

sako Anaje Narbaizak jaso zuen Bai Euskarari Laguna saria. Bai Euskarari sariak, berriz, Galdakaoko Vusa Eraikuntzak enpresak eta Leitzako, Goizuetako, Aresoko eta Aranoko ziurtagiridunek jaso zuten.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte Gasteizko Badu Bada erakusketan

Arabako Foru Aldundiak *Badu Bada, euskara mundu eleanitzean* izeneko erakusketa zabaldu du Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean. Erakusketa Donostiako San Telmo museoan inauguratu zen 2012an, eta aurten, urtea bukatu bitartean egongo da zabalik Florida parkeko kultur etxean.

Erakusketarekin batera, hainbat ekitaldi izango dira: hitzaldiak, mahai-inguruak, ikus-entzunezkoen aurkezpenak edota solasaldiak pertsona ezagunekin, hala nola, Bernado

Atxaga, Iban Zaldúa, Kike Amonarriz, Iñaki Martinez de Luna eta abar.

Tartean, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak bi ekitaldi antolatuko ditu. Lehena, azaroaren 27an izango da. Egun horretan, Arabako ziurtagiridunak gonbidatuko ditugu Enpresarean egitasmoa ezagutzera, eta erakusketa bisitatzera.

Abenduaren 3an, berriz, Euskararen Nazioarteko Egunean, Mintzodromoak antolatuko ditugu Gasteizko Lanbide Heziketako ikasleekin. Lau saio izango dira, eta besteak beste, lan-mundua, lanbide heziketa edo Enpresarean egitasmoa izango dituzte hizpide.

Gasteizkoa ez da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko eta Badu Bada erakusketaren arteko lehenengo enkontrua izango. Donostian Enpresarean egitasmoaren nondik-norakoak eztabaidatzeko saioa antolatu baitzen aurtengo otsailean.

Badu Bada erakusketa astelehene-tik larunbatera dago zabalik, 9:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara. Bisita gidatuetarako txandak ccultura@alava.net helbidean edo 945 181944 telefono zenbakian eskatu behar dira.



Hausnarketa estrategikoa: etorkizuna eraikitzen

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Hausnarketa Estrategikoa (2014-2016) burutu dugu 2013 urtean zehar. Egoeraren azterketa egin dugu eta, bestetik, aurrera begira Ziurtagiriaren Elkartearen helburua eta lan ildoak zeintzuk izango diren zehaztu da.



Hausnarketa estrategikoaren bitartez, gure egitasmoa sendotu eta alor sozioekonomikoaren euskalduntzearen bidean urrats biziak egiten jarraitu nahi dugu. Elkarlanean, noski, guztiok garelako eragile.

Etorkizuna eraikitzen jarraitzeko helburu nagusia adostu dugu: arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea; eta horretarako bost ildo zehaztu ditugu:

Bai Euskarari Ziurtagiriaren komunitatea indartzea. Bai Euskarari Ziurtagiriaren komunitatearekiko pertenezia-binkulua indartu nahi dugu, entitateekin eta per-

tsonekin, ziurtagiridunen artean komunitate baten kide eta parte-hartzaile izatearen pertzepzioa zabaltzeko.

Bai Euskarari Ziurtagiria tresna moduan indartzea, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean gero eta tresna eraginkorragoa izan dadin. Ziurtagiria eskuratzeko irizpideak eta prozesua errebisatuko dira, entitateen beharrei ahalik eta egokien erantzuteko.

Eremu sozioekonomikoaren eragiletza. Ildo honetan, dimentsio aldaketa irudikatzen ari gara, Ziurtagiriaren Elkartearen lidergoa goragoko alor batera eramanez. Esparru honetan garatu beharreko ekintzak sei eremutan bereizi ditugu: enpresen artekoak (adibidez, Enpresarean proiektua); administrazioarekin garatu beharrekoak; euskalgintzarekin lantzekoak; kontsumitzaileekin jorratzekoak; langileekin aurrera eramatekoak, eta beste hizkuntza komunitate batzuekin lantzekoak.

Ziurtagiriaren Elkartea eraldatzea, zuzendaritza-taldea, ekipoa eta Ziurtagiriaren Elkartea bera sendotzeko.

Eta, azkenik, **Ziurtagiriaren hedapena eta sustapena indartzea. Komunikazioa.**

Prozesu honetan bidelagun ugari izan dugu: Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateak, zuzendaritzako kideak, ekipoa, talde eragileko kideak, Kontseiluko bazkideak eta lankideak, erakunde publikoak eta proiektuan urteotan modu batera edo bestera parte hartu izan dutenak. Eskerrik asko guztioi! Hausnarketan jaso dugun ekarpena, guztioi bueltan ematea dagokigu.



Txakolinak on egin

Uzta garaian harrapatu ditugu bete-betean txakolindegietako ardura-dunak. Uzta biltzea amaitzeaz dagoe-la esan digute. Ondoren, elaborazio prozesuan sartuko dira, eta martxotik aurrera botilaratuko dute aurtengo uzta.

Getariako Txakolina Jatorrizko izen-dapenarekin, batz bestea, 2.500.000 botila ekoizten dira urtero. 2013 urteko uztaren datuak, ordea, momentuz ez dituzte aieratu nahi izan "datu guztiak eskuartean izan arte".

Gaur egun 26 upategik osatzen dute Getariako Txakolina Jatorrizko Deitura. "Baina datorren urtetik aurrera 28 izango gara, Orion eta Alkizan beste bi zabalduko dituztelako", aurreratu digute. Gehienak, kostaldean, baina Arrasate, Oñati edo Olaberrian upeltegi bana dago. Datu zehatzik egon ez

arren, gutxi asko 150 behargin inguru dira txakolinaren bueltan dabiltzanak, nahi eta uzta garaian kopuruak gora egin.

Arabako Txakolina Jatorrizko Izenaren azpian zortzi upategi daude, eta 70 bat lanpostu sortzen ditu. Ekoizpena apalagoa da, 350.000 botila urteko. Aurten, ordea, kopuru horretara ez dira helduko. "Udaberri beltza izan dugu, euri askorekin. Nahiko kezkatuta gaude, produkzioak behera egingo duelako nabarmen", azaldu digute Jatorrizko Izendapenetik.

Garai berrietara egokitzen

Garai batean ez bezala, punta-puntako makinariak hornitu dituzte upategiak elaborazio prozesua arinduz. Mahats-bilketa, berriaz, garai batean bezala egiten da, eskuz. Moderniza-

zioa beste esparru batzuetara zabaldu da.

Esate baterako, teknologia berrietara. Webguneak modernizazio horren lekuko dira, eta webguneen baitan antolatutako salmenta, bisita gidatu edota dastatzeak txakolindegiek hartu duten norabidearen adierazgarri.

Urtean zehar antolatzen diren ekitaldiak, festa bereziak edota kanpainak bezala. "Zenbait esparrutan aurrera pausoak eman behar izan ditugu, ikasi behar izan dugu; ohartu baikara txakolina ona egitea bezain garrantzitsua dela gure produktua ezagutaraztea edota marka saltzea", adierazi digute.

► GETARIAKO TXAKOLINA

► ARABAKO TXAKOLINA JATORRIZKO IZENA

Bai Euskarari Ziurtagiria **Euskararen bidean** maila



leitzaran

leitzaran Gráfika, S.L.
 Martín Ugalde Kultur Parkea
 20140 Andoain (Gipuzkoa)
 tel: 943 303510 - fax: 943 593067





- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak

- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala

Kirola eta euskara, eskutik helduta



Itzarri Consulting enpresak kirola eta euskara uztartzeko egitasmoa bideratuko du, Bilboko Udalaren Euskara, Gazteria eta Kirolak sailarekin eta Bizkaiko Guraso Elkartarekin (BIGE) batera.

Egitasmoaren oinarrian kirolari famatuak Bilboko ikastetxeetan emango dituzten hitzaldiak daude, guztira zortzi. Helburua bikoitza da; batetik, euskararen normalizazioan eragin nahi dute, eliteko kirolariak ikasleengan daukaten eragina baliatuz. Bestetik, kirolaren balioak sustatzeko ahalegina egingo dute, beti ere hezkuntzaren ikuspuntutik.

Koikili Lertxundi, Ibai Gomez, Arrate Orueta, Aitziber Juaristi eta Iraia Iturregi futbolariak, Beñat Intxausti eta Igor Anton txirrindulariak, Iñaki Iza eta Mikel Urrutikoetxea pilotariak, Maider Unda borrokalaria, Eunat Agirre bodyboardlaria eta Alex Txikon mendizalea izango dira hizlarietako batzuk. Esan bezala, euskara eta kirola uztartuko dituzte Itzarri enpresako aholkulariekin batera.

► ITZARRI CONSULTING

Bai Euskarari Ziurtagiria **Zerbitzua Euskaraz** maila

ENHE-Bizkaiak Elikadura Burujabetza Saria jaso du

EHNE-Bizkaiak 2013ko Elikadura Burujabetzaren Saria jaso du New York hirian, Indiako, Maliko eta Haitiko beste hiru erakunderekin batera.

Saria *US Food Sovereignty Alliance* erakundeak ematen du, eta baliabide naturalen neurrigabeko ustiaketaren kontra egiten duten, elikagai tradizionalak lantzen dituzten, eta euren komunitateak multinazionalen esplotaziotik babesten dituzten elkarteak saritzen ditu.

Ohorezko Saria Haitiko 4ko Taldeak eta Hegoamerikako Dessalines Brigadak eskuratuko dute. EHNE-Bizkaia, berriz, aipamen bereziarekin saritu dute Indiako Tamil Nadu Emakumeen Kolektiboarekin eta Maliko Baserritar Erakundearen Koordinazio Nazionalarekin batera.

Saria Helen Groome Karrantzako baserritarak jaso zuen, EHNE-Bizkaia ordezkatzuz.

► EHNE BIZKAIA

Bai Euskarari Ziurtagiria **Euskararen bidean** maila





ziurtagiriaren **elkartea**



baieuskarari.org



@baieuskarari



/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

urrats biziak

